

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2324

AGINDUA, 2020ko ekainaren 2koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez izendatzen baitira goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak.

Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritik, eta dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen izendapenak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2019ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, eranskinen aipatzen direnak izendatzea goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Izendapenak agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 2a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2020ko ekainaren 15a, astelehena

ERANSKINA

GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILEEN ESKAERA ONARTUAK

Izen-abizenak	Espediente-zenbakia	Modalitatea	Kategoria
Amatriain Arregi, Iker	754/19/D	Surfa	Kirolaria
Avendaño Lera, Jose Maria	761/20/D	Kirol egokitua (GAS)	Kirolaria
Elosegi Alkain, Ander	777/20/D	Piraguismoa	Kirolaria
Etxeberria Delgado, Odei	759/20/D	Piraguismoa	Kirolaria
Garmendia Enparantza, Olatz	763/20/D	Piraguismoa	Kirolaria
Gobantes Abrisqueta, Galder	792/20/D	Herri kirolak	Kirolaria
Goñi de Vergala, Alex	760/20/D	Piraguismoa	Kirolaria
Hernandez Serrador, Ainhoa	800/20/D	Eskubaloia	Kirolaria
Larrañaga Uranga, Ainhoa	797/20/D	Eskubaloia	Kirolaria
Mateo Uriarte, Rakel	792/20/D	Triatloi egokitua	Kirolaria
Queralt Irazu, Urko	779/20/D	Tiroa	Kirolaria
Tolosa Inda, Ainhoa	795/20/D	Piraguismoa	Kirolaria
Libano Salas, Iker-Ekaitz	114/20/T	Piraguismoa	Teknikaria
Nuñez Gastón, Esteban	112/20/T	Kirol egokitua	Teknikaria
Taberna Otaño, Javier	113/20/T	Piraguismoa	Teknikaria